

EMAN MINUTU BAT... BERDINTASUNAREN ALDE

PEDRO DE ATARRABIA DBHiko ikaslea den Julen Casullerasek Bilboko Unesco Etxea Gobernu Kanpoko Erakundea (GKE)k antolaturiko lehiaketa batean hirugarren postua lortu du, eta ikaskideak dituen Jon Lasarte eta Ion Taniñe 21 finalisten artean geratu dira. 60 segundoko ikusentzunezko proiektuetan islaturiko genero desberdintasunari buruzko istorioak azaldu behar zituzten eta, gure ikasleen esanetan, errazena kontatu nahi zuten “ideiara iristea” zen eta, zailena, alderdi teknikoa.

Martxoaren 4an, Bilboko UNESCO Etxeko *Eman Minutu Bateko* bere 6. edizioko sari banaketa izan zen. Lehiaketak minutu bateko laburmetraia egitea zuen helburu eta gaia, generoen berdintasuna sustatzea edota desberdintasunak salatzea. Pedro Atarrabiako Institutoko D ereduko 2. DBH-ko E, F, G eta H eta 3. DBH-ko E taldeek parte hartu zuten, Gaztelera eta Literaturako beren irakasleak, Irati Baraibarrek, animaturik. *Ekin eta Egin* deituriko kategorian parte hartu zuten, 12 urtetik 18 urtera doana. Finalisten artean Ion Taniñe, Jon Lasarte eta Julen Casulleras izan ziren. Azken honen kortometrajea aukeratua gelditu zen *Ekin eta Egin*eko azkeneko hiru aukeratuen artean.

PROIEKTUA. Eguberrietatik bueltan, ikasleak hezkuntza proiektu berri batean murgildu ziren Gaztelera eta Literaturako ikasgaietan. Proiektuaren helburua egungo gizartean existitzen diren generoen desberdintasunaren inguruko kontzientzia kritiko bat eskuratzea zen. Horretarako, eta komunikabideekin lotuz, ikasleek berriak, iritzi artikulak, editorialak, kolumnak etab. hasi ziren bilatzen gizartean ematen diren desberdintasunen inguruan informazioa jasotzeko eta gizartean emakumeek jasaten duten desberdintasunaz jabetzeko. Pixkanaka-pixkanaka beraiek euren buruari galderak egiten eta injustizia horren inguruan hausnarketa egiten joan ziren eta existitzen diren desberdintasun ekonomikoetatik hasita emakumeen aurkako indarkeriara, gai guztiak jorratu ziren.

Egoera hauek salatzeko asmoz eta emakumeei dagokien lekua ematearren, klaseak taldeka edo banaka banandu ziren (finalisten kasuan, banaka egitea nahiago izan zuten). Horretarako, klasean eta irakaslearen laguntzarekin, gidoiak egiten hasi ziren (laburmetraiaren argumentua zein izango zen edota pentsatuz zein mezu bidali nahi zuten). Behin ideia argi edukita, hurrengo pausuarekin hasi ziren: *storyboarda* egiten, hots, gidoi tekniko bat egiten, zeinetan plano bakoitzean agertuko dena azaltzen den, dagokien irudiekin, soinuarekin, elkarrizketekin etab. Hau egin ondoren, geratzen zen bakarra kamarak funtzionatzen ipintzea zen, eta pausu hau ikasleek beraien kabuz egin zuten. Behin grabatuta, pausurik zailena geratzen zen, baita azkenekoa ere: bideoen edizioa. Hau aurrera eramateko, irakasleak doaneko hainbat programa gomendatu zuen (horien artean, *Windows Movie Maker*). Horrela, azkenik, laburmetraiak eginak zeuden eta lehiaketara bidali ziren. Ondoren, parte hartu zuten guztien artetik hiru ikasle hauenak izan ziren aukeratuak, Julen Casullerasena hirugarren gelditu zelarik. Ongi merezitako esker ona irabaztea helburu ez zuen lan baterako.

DAME UN MINUTO DE... IGUALDAD

El estudiante del IESO PEDRO DE ATARRABIA Julen Casulleras logra el tercer puesto y sus compañeros Jon Lasarte y Ion Taniñe quedan entre los 21 finalistas en un concurso de la ONG Unesco Etxea en Bilbao. L@s alumn@s tenían que presentar proyectos audiovisuales de 60 segundos que reflejaran la desigualdad de géneros y, según relatan, lo que menos les costó fue “llegar a la idea” que querían contar pero resultó más difícil la parte técnica.

El pasado 4 de marzo, UNESCO Etxea de Bilbao, en su sexta edición de *Dame Un Minuto De...*, entregó los premios a las mejores piezas audiovisuales. Estas trataban el tema de la igualdad de género. Algunos alumnos del IESO PEDRO DE ATARRABIA de 2º y 3º ESO del modelo D enviaron sus cortometrajes al concurso en la categoría *Ekin eta Egin*, para chicos y chicas de 12 a 18 años. Entre los finalistas se encontraban Ion Taniñe, Jon Lasarte y, por último, Julen Casulleras. El cortometraje de este último quedó seleccionado entre las 3 piezas que disputaban el premio *Ekin eta Egin*.

EL PROYECTO. A la vuelta de las Navidades, los alumnos de 2º E, F, G y H 3º E de la ESO del instituto PEDRO DE ATARRABIA de Villava se sumergieron en un nuevo proyecto educativo en la asignatura de Lengua Castellana y Literatura, animados por su profesora Irati Baraibar. El objetivo de este proyecto era adquirir una conciencia crítica sobre las desigualdades de género existentes en la sociedad hoy en día. Para ello, y relacionándolo con el tema de los medios de comunicación, los alumnos fueron buscando noticias, artículos de opinión, editoriales, columnas, etc. que hicieran constancia de la situación de desventaja que todavía hoy padecen las mujeres en diferentes aspectos de la vida. Poco a poco, se empezaron a hacer preguntas y fueron reflexionando sobre la injusticia de estas situaciones (desde las desigualdades económicas y sociales hasta la violencia física ejercida contra la mujer en algunos contextos).

Con la intención de denunciar estas situaciones de desventaja que siguen dándose y empoderar a las mujeres, las clases se dividieron por grupos o, si así lo preferían, lo hicieron individualmente (en el caso de nuestros finalistas, los tres decidieron llevar a cabo su proyecto de manera individual). Para ello, en clase, por grupos y con ayuda de la profesora, escribieron un pequeño guión (en él se indicaba el argumento o el mensaje que se quería trasladar en el cortometraje). Una vez tenían la idea más o menos clara, se pusieron a completar el *storyboard* (una especie de guión técnico o plantilla en la que se van describiendo, plano por plano, las secuencias que se van a grabar, el sonido que se escuchará, los personajes que aparecerán, los diálogos que tendrán los personajes, etc). Una vez realizado el *storyboard*, solo quedaba poner las cámaras en acción y comenzar a grabar. Por último, quedaba el paso más costoso: la edición del vídeo. A los alumnos se les recomendaron varios programas gratuitos para editar los vídeos (entre ellos estaba, por ejemplo, el *Windows Movie Maker* y, por fin, el producto estaba servido. Una vez en el concurso, los cortometrajes de estos tres alumnos fueron seleccionados para la final, donde el de Julen Casulleras quedó en tercer lugar, un merecido reconocimiento para un trabajo en el que el objetivo no era ganar.